

**2015-2016 IKASTURTEAN DOKTOREAK EZ DIREN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORATU
AURREKO PROGRAMAKO LAGUNTZAK BERRITZEKO DEIALDIA**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bere doktoratu aurreko laguntzak berritzeo epea ireki du.

Modalitateak:

Ezarpen-zentroaren kokapena	Laguntza Berrien linea	Laguntza-berritzeen linea		
		1. berritzea	2. berritzea	3. berritzea
EAE	A modalitatea	A modalitatea	A modalitatea	A modalitatea
Estatuko gainerako erkidegoak	B modalitatea	B modalitatea	B modalitatea	B modalitatea
Atzerria	I modalitatea	I modalitatea	C modalitatea	C modalitatea

Betekizunak:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren doktoratu aurreko programako laguntza bat jaso izana 2014-2015 ikasturtean.
- Ikerketa proiektuaren laneko planean aurreikusitako jardueri probetxu ateratzen diela egiaztatzea, modalitate bakoitzari dagokion egiaztagiraren bitartez.
- Zigor penalik edo administratiborik ez edukitzea, eta ondorioz, diru-laguntza edo bestelako laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu ez izatea; edo halako laguntzak jasotzeko legezko debekurik ez edukitzea (sexuarengatiko bereizkeriaren ondoriozkoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren arabera).

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Jarraian zehaztutako dokumentazioa [bide telematikoa](#) erabiliz aurkeztu behar da:

- Laguntza azkenengoz berritu zenetik gauzatutako jarduera akademikoaren eta ikerketa jardueren memoria, orri batekoa. Kalifikazio akademikoak ere sartuko dira, halakorik balego.
- A eta B modalitateetan, lehen eta bigarren aldiz berritzen denerako, doktorego programako batzorde akademikoaren aldeko txostena edo, hala badagokio, doktorego eskolarena; txostenak onuradunak programan irauten duen denborari egin beharko dio erreferentzia, eta programa horren arduradunak sinatuta egon beharko du.
- A eta B modalitateetan, hirugarren aldiz berritzen denerako, laguntzaren onuradunak bere tesia inskribatuta duen doktorego programaz arduratzen den batzorde akademikoaren baimena, laguntza beste urtebetez luzatu ahal izateko.
- C eta I modalitateetan, ikerketa proiektuaren zuzendariaren aldeko txostena, eskatzaileak gauzatutako jarduera akademikoari eta/edo ikerketa jardueri buruzkoa, eta bere errendimenduari buruzkoa.

- e) Ezarpen zentroaren konpromisoa, bertako legezko ordezkariak sinatutakoa (unibertsitateen kasuan, ikerketaren arloko errektoreordea edo horren baliokidea), egungo lan kontratua beste hamabi hilabetez luzatzeko, hala dagokionean. Ezarpen zentroa UPV/EHU den kasuetan, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak ofizioz eskatuko du konpromiso hori.

OHAR GARRANTZITSUA:

UPV/EHUko konpromiso dokumentua eskuratzeko izapideak:

Deialdiaren 34.5 artikulua adierazten duen moduan, UPV/EHUrak atxikitako onuradunen kasuan, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak ofiziozko konpromiso dokumentua eskatuko du; horretarako, Ikerketaren arloko Errektoreordetzara joko du zuzenean. Beraz, eskatzaile horiek ez dute aipatutako dokumentua erantsi beharko aplikazioan.

Eskaerak aurkezteko modua eta epea:

Onuraduna arduratuko da eskaera betetzeaz, [formulario elektronikoaren](#) bitartez, eta erregistratu ere egin beharko du, [22.2 eta 22.3 artikuluetan](#) adierazitako bideetako edozein erabiliz. Horretarako epea **2015eko irailaren 15ean, asteartea, amaituko da (egun hori barne)**.

Erregistroa Euskal Herriko Unibertsitatearen Erregistro Bulegoetan egin ahalko da, eskatzailearen ezarpen-zentroa bada:

- Arabako 01 erregistro-bulegoa (Arabako Campuseko Errektoreordetza, Izardui komandantea 2, 01005 Vitoria-Gasteiz).
- Gipuzkoako 02 erregistro-bulegoa (Ignacio M.^a Barriola gelategia, Elhuyar plaza 1, 20018 Donostia).
- Bizkaiko 03 erregistro-bulegoa (Errektoretza, Sarriena z.g., 48940 Leioa)
- Bizkaiko 04 erregistro-bulegoa (Larrako Etxea, Agirre Lehendakariaren etorbidea 83, 48015 Bilbao).

Harremanetarako:

Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco:

- EAetik: 012
- EAE kanpotik: 945 018000
- Atzerritik: 00 34 945 018000

UPV/EHU:

- Tel.: 94 601 80 08
- Helbide elektronikoa: rrhh-inves.dgi@ehu.es

Informazio gehiago:

https://www.euskadi.eus/dirug_laguntza/2015/predoc-berriztapenak/y22-izapide/eu/